Sometida la Moción transaccionada a votación, obtiene el siguiente resultado: 12 votos a favor del PP y PSE-EE y 10 en contra del PNV.

Ondorioz, gehiengoz erabaki zen:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"Bat.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak alkatea premiatzen du, Getxoko Kultur Etxea Erakunde Autonomiaduneko berezko presidentea denez, "Pirritx, Porrotx eta Mari Motots" pailazoekin sinatutako kontratua bertan behera uztera, 2009ko ekainean udalerrian egin beharreko emanaldirako. Pailazo horiek "Katxiporreta Koop. E" merkataritza taldeak ordezkatzen ditu."

"Primero.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Alcalde, como Presidente nato del Organismo Autónomo Aula de Cultura de Getxo, a que anule el contrato suscrito con el grupo de payasos "Pirritx, Porrotx eta Mari Motots" representados a través de la mercantil "Katxiporreta Coop. E", para la actuación de los payasos Pirritx eta Porrotx en junio del 2009 en el municipio.

Bi.- Getxoko Udaleko osoko bilkurak Kultur Etxea Erakunde Autonomiaduneko presidentearen jokaera politikoa gaitzesten du. Presidentea Koldo Iturbe jauna da, alkateak hala eskuordetuta, eta Erakunde Autonomiaduneko Estatutuak urratu ditu, kontratu hori bertan behera uztea bozkatu ez zuelako eta horren bidez Artezkaritza Kontseiluko kideen borondate demokratikoaren zenbakizko adierazpena galarazi zuelako."

Segundo.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo reprueba el comportamiento político del Presidente del Organismo Autónomo Aula de Cultura de Getxo que por delegación de la Alcaldía ostenta don Koldo Iturbe, por vulnerar los Estatutos del Organismo Autónomo, al no someter a votación la anulación de dicho contrato, y con ello impedir la manifestación numérica de la voluntad democrática de los componentes de dicho Consejo Rector".

**90.- UDALEKO TALDE POPULARRARAREN MOZIOA AREETAKO ONTZIRALEKUA EGOKITZEARI BURUZ.**

**90º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ADECENTAMIENTO EMBARCADERO DE LAS ARENAS.**

Arrue andreak irakurri du aipaturiko Mozioa eta gaur egun ontziralekuak duen egoerari buruzko argazkiak erakutsi ditu. Adierazi du Udalak laster Areetako portuan egokitzeko jarduerak egin behar dituenez, une egokia litzatekeela Mozioan proposatutako jarduerak egiteko.

La Sra. Arrue da lectura a la Moción de referencia, y enseña fotos de la situación actual del embarcadero, manifestando que ante la próxima actuación del Ayuntamiento en el Muelle de Las Arenas sería el momento adecuado para que se actuara también como se propone en la Moción.

Almansa jaunak transakzional bat proposatu du xedapenaren zatian

El Sr. Almansa plantea una transaccional para incorporar un mayor

zorroztasun handiagoa izateko. Gogorarazi du indarrean dagoen araudiak orubeetako eta jabetzetako jabeak edo erabiltzaileak derrigortzen dituela txukun eta osasunarentzako egokiak diren egoeran mantentzera, eta Alkateak hala eska dezakeela betebehar horiek beteko ez balituzte, horregatik aurkeztu dute transakzional hau. Honakoa dio:

rigor en la redacción de la parte dispositiva. Recuerda que la normativa vigente obliga a los propietarios o usuarios de los diferentes solares y propiedades a mantenerlos en estado de salubridad y ornato, pudiendo ser requeridos por el Alcalde para ello en el supuesto de que no cumplieran dichas obligaciones, motivo por el cual presenta la enmienda transaccional, que dice lo siguiente:

"1. Getxoko Udaleko osoko bilkurak adostu du Alkatea premiatzea Areetako ontziralekuak segurtasun, osasun eta dotorezi publikoko beharrezko baldintzak betetzeko beharrezko neurriak hartzera."

"1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo, acuerda instar al Sr. Alcalde a que tome las medidas oportunas para que el embarcadero de Las Arenas adquiera las debidas condiciones de seguridad, salubridad y ornato público."

Arrue andreak adierazi du ados dagoela hartzen den erabakiaren berri alkateak eman behar izatean, baina uste du gaia konpondu eta jardun beharrekoa Portu Autonomoa dela, beraz, Mozioko testua egokia dela uste du eta ez du transakzionala onartzen.

La Sra. Arrue manifiesta que está de acuerdo en que el Alcalde tendrá que dar traslado de la decisión que se tome, pero estima que quién tiene que arreglar el tema y actuar es el Puerto Autónomo, por lo que le parece correcto el texto de la Moción y no admite la transaccional.

Almansa jaunak berriro dio bere proposamena zuzena dela Administrazioan ez baita jarduten osoko bilkurako egoera hierarkikoen eta alkatearen arabera, ez baitago horrelakorik. Aldiz, organo bakoitzaren eskumenak erabiltzen dira eta planteatzen dena alkateari dagokio zuzenean.

El Sr. Almansa insiste en que su propuesta es la correcta, ya que en la Administración no se actúa en función a situaciones jerárquicas del Pleno y el Alcalde, que no existen, si no ejercitando las competencias de cada uno de los órganos, y lo que se plantea corresponde directamente al Alcalde.

Arrue andreak berriro dio aurrez adierazitakoa eta ez duela zalantzarik alkateak hartutako akordioaren berri emango duela, beraz, berretsi egiten du transakzionala ez duela onartzen.

La Sra. Arrue insiste en lo manifestado y en que no tiene dudas de que el Alcalde trasladará el acuerdo que se adopte por lo que se ratifica en no aceptar la enmienda transaccional.

Arregi jaunak, Gobernu taldearen izenean, gogorarazi du osoko bilkurak

El Sr. Arregi en nombre del equipo de Gobierno recuerda que el Pleno muchas

askotan premiatu dituela beste administrazio batzuk jardun daitezen eta kasu honetan Mozioa babestu egingo dute.

Eztabaida amaituta aipaturiko Mozioa bozkatu egin da eta osoko bilkurako kide guztiek onartu dute.

Ondorioz, aho batez adostu zen:

"AREETAKO ONTZIRALEKUA EGOKITZEA

Areetako Portuko Pasealekua da gure udalerrien jende gehien ibiltzen den tokietako bat eta Bizkaiko pasealekurik politenetako bat.

Badakigu udaberrian pasealeku osoko zorua hobetzeko obra garrantzitsuak egitera doazela, baita bidegorrian ere eta bertako argiak hobetzera doazela.

Areetako Portuko Pasealekutik joan daiteke Areetako ontziralekura eta toki hori nahiko egoera kaxkarrean dago, zikina eta pintadaz josita. Kasu batzuetan arriskutsua ere izan daiteke bertara doazenentzat eta Areetako Portutik ikusteko lotsagarria da, nola dagoen kontuan hartuta.

Uste dugu Getxoko Udaletik parte hartze handiagoa izan behar dugula ontziraleku hau zaintzean eta hori mantentzearen eskumena Portu Autonomoari dagokionez eta Getxoko Udalak ezin duenez hori txukuntzeko jarduerarik egin, proposatzen dugu

veces ha instado a otras administraciones para que actúen, y que en el caso presente también van a apoyar la Moción.

Finalizado el debate, se somete la Moción de referencia a votación siendo aprobada por la totalidad de miembros del Pleno.

En consecuencia, por unanimidad se acordó:

"ADECENTAMIENTO EMBARCADERO DE LAS ARENAS

El Paseo del Muelle de Las Arenas es unos de los lugares de nuestro municipio donde más personas pasean y uno de los paseos mas bellos de Vizcaya

Sabemos que se van a realizar esta primavera unas obras importantes de mejora del pavimento de todo el paseo, del bidegorri y de la iluminación en el mismo.

Desde el Paseo del Muelle de Las Arenas se puede acceder al llamado embarcadero de Las Arenas, que se encuentra en unas condiciones bastantes deplorables, sucio lleno de pintadas. En algunos casos se puede considerar hasta peligroso para las personas que acceden al mismo, y para verlo desde el Muelle de Las Arenas es una verdadera vergüenza como se encuentra.

Creemos que desde el Ayuntamiento de Getxo debemos implicarnos más en el cuidado de este embarcadero y dado que la competencia del mantenimiento del mismo es del Puerto Autónomo y el Ayuntamiento de Getxo no puede actuar para adecentar el mismo

Getxoko Udaletik Portu Autonomoa premiatzea Areetako ontziralekua txukuntzeko jardueraren bat egin dezan, baldintza egokietan uzteko, gaur egun oso baldintza kaskarretan dagoelako.

proponemos que desde el Ayuntamiento de Getxo se inste al Puerto Autónomo para que realice una actuación de adecentamiento del llamado embarcadero de Las Arenas, para dejarlo en óptimas condiciones ya que en la actualidad se encuentra en unas condiciones deplorables.

Horregatik guztiagatik Alderdi Popularrak akordio-proposamen hau aurkeztu du.

Por todo ello el partido Popular presenta la siguiente propuesta de acuerdo.

Getxoko Udalak Bilboko Portuko Agintaritza premiatzen du ahalik eta lasterren konpondu eta txukundu dezan Areetako ontziralekua."

El Ayuntamiento de Getxo insta a la Autoridad Portuaria de Bilbao para que a la mayor brevedad posible proceda a la reparación y adecentamiento del embarcadero de Las Arenas".

**91.- UDALEKO TALDE POPULARRAREN MOZIOA GETXORAKO HIRI GARRAIOARI BURUZ.**

**91º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/TRANSPORTE URBANO PARA GETXO.**

Jon Eguiluzek irakurri du Mozio hau euskaraz eta gazteleraz eta adierazi du Udalak ez daukala proiektuak idazten dirua gastatu beharrik, horiek enpresa lizitatzaileek aurkeztuko lituzketelako:

Jon Eguiluz da lectura a la siguiente Moción en euskera y castellano, y manifiesta que el Ayuntamiento no tiene que gastar dinero en redactar los proyectos ya que estos los presentarían las empresas licitadoras:

"GETXORAKO HIRI GARRAIOA

"TRANSPORTE URBANO PARA GETXO

Berriro ere Alderdi Popularrak dakar ekimen hau osoko bilkurara.

Una vez más, el Partido Popular, trae a este Pleno esta iniciativa.

Duela urte batzuk Udal honek hiri-garraio zerbitzua ezartzeko prozesua hasi zuen, eta horretan geratu zen, hau da, saio bat, azterketa batzuk, etab. Alegia, dirua gastatu da, baina behin betirako abian jartzeko erabakirik ez da

Hace años, que este Ayuntamiento, inició un proceso para establecer un servicio urbano de transporte, quedando siempre en eso, es decir, en un intento, unos estudios, etc. en definitiva ha gastado dinero, sin llegar

hartu.

a tomar la decisión de ponerlo en marcha de una vez por todas.

Denok dakigu Getxo ez dela ohiko hiria, dena hirigunearen inguruan dagoena, baizik eta luzean hazitako herria da eta beste gune txikiago batzuez eratua, komunikazioa zailtzen duen orografiarekin.

Todos sabemos, que Getxo no es una ciudad al uso, en la que todo circunda sobre un núcleo central, sino que se trata de una población extendida longitudinalmente y formada por otros núcleos de población más reducidos, pero con una orografía que dificulta la comunicación.

Getxok hiri arteko garraioa baduen arren, eta auzo hauek lotzen dituen arren ardatz nagusi baten bidez, ez dago hiri intereseko puntu desberdinen arteko loturarik, hau da, anbulatorioen, iroldegien, ikastetxeen eta hondartzen arteko loturarik eta orain enpresak zabaltzea nahi da eta udalerriaren aldirietaraino iritsi dira.

Si bien Getxo dispone de un transporte interurbano que une estos barrios a través de un eje central, no está conectado entre distintos puntos de interés urbanos, como pueden ser, los ambulatorios, polideportivos, colegios, playas y ahora con la expansión empresarial que se pretende y que llega incluso a la periferia del municipio.

Horregatik guztiagatik Alderdi Popularrak "Hiri Garraio Zerbitzua" ezarri behar dela uste du, intereseko puntuak eta puntu bereziak elkarrekin lotzeko.

Es por eso, que el Partido Popular, considera necesaria la implantación de un "Servicio de Transporte Urbano", que una estos puntos de interés y otros singulares entre sí.

Hori guztia abalatzen du Euskal Herriko Unibertsitateak Getxoko merkataritzari buruz egindako azterketak ere eta garraio hori beharrezkoa dela uste du.

Todo ello, es avalado asimismo, por un estudio sobre el comercio en Getxo, realizado por la Universidad del País Vasco, que considera la necesidad de dicho Transporte.

Horregatik talde Popularrak eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du akordio proposamen hau.

Por todo ello el grupo Popular presenta para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo.

LEHENENGOA. Proiektu berri bat garatu Getxon hiri-garraioa ezartzeko, eta proiektu horretan material arina (mikrobusak) erabiltzea aurreikusi, hirigunean ibili ahal izateko.

PRIMERO. Desarrollar un nuevo proyecto para la implantación del Transporte Urbano en Getxo, contemplando en dicho proyecto la utilización de materiales ligeros (Microbuses) que posibiliten la circulación por el núcleo urbano.

BIGARRENA. Proiektu hau burutu,

SEGUNDO Llevar a cabo la ejecución

aipaturiko zerbitzua ustiatzeko emakida lizitazioa aterata".

de dicho proyecto, sacando a licitación la concesión para la explotación del mencionado servicio".

Almansa jaunak aldaketa transakzional bat aurkeztu du eta honakoa dio:

El Sr. Almansa presenta una enmienda transaccional que dice así:

"1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Gobernu taldea premiatzen du hurrengo legealdiko aurrekontuetan "Getxoko hiri garraio publikoaren azterketa-Jarduteko gomendioak" eguneratzeko, 2004ko azarokoa baita.

"1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al equipo de Gobierno a que contemple en los presupuestos del próximo ejercicio, la actualización del "Estudio del Transporte Público Urbano en Getxo-Recomendaciones de Actuación", realizado en noviembre del 2004.

2. Azterketa hori eguneratuta Udalak zehaztu dezala Getxon hiri garraio publikoaren udal zerbitzua ezartzeko aukera dagoen ala ez."

2. Que en base a la actualización de ese estudio, el Ayuntamiento determine la oportunidad o no de implantar un servicio municipal de transporte público urbano en Getxo".

Jon Eguiluzek berriro dio Udalak ez daukala proiektuak egiten dirua zertan gastatu, beraz, ez dute aldaketa transakzionala onartuko.

Jon Eguiluz insiste en que ya ha manifestado en que el Ayuntamiento no tiene por qué gastar dinero en la realización de los proyectos, por lo que no van a admitir la enmienda transaccional.

Almansa jaunak adierazi du hiri-garraioaren gaia ez dela berria, izan ere 2002an talde Popularrak azterketa bat eskatu zuen hiri-garraio linea bat ezartzeko eta 2007ko Osoko Bilkura batean orain aurkezten duen bezalako Mozioa aurkeztu zuen eta biek talde Sozialistaren babesa izan zuten arren, Gobernuko taldeak atzera bota zituen. Mozioa demagogikoa dela iruditzen zaio, gai honi buruz ez baitzuten ezer planteatu aurrekontuen eztabaidan eta garraio-zerbitzu publikoa sortzeak defizit handia eragiten du eta ohiko gastua hazi egiten da, eta hori kritikatu egiten du talde Popularrak. Gogorarazi duenez 2002an aurkeztu zen Mozioa eta talde Sozialistaren babesa izan zuen,

El Sr. Almansa indica que el tema del transporte urbano no es nuevo ya que el año 2002 el grupo Popular pidió un estudio para la implantación de la línea de transporte urbano, y en un Pleno del año 2007 presentó una moción idéntica a la que ahora presentan, y ambas recibieron el apoyo del grupo Socialista, aunque fueron rechazadas por el equipo de Gobierno. Califica la Moción como demagógica ya que sobre esta cuestión nada plantearon en el debate presupuestario, y crear un servicio público de transporte genera grandes déficits e incrementos de gasto corriente que por otra parte el grupo Popular critica. Recuerda que la Moción que se presentó el año 2002 y contó con

eta azterketa bat planteatzen zen; talde Popularrak 2007an aurkeztu zuenak gaurko testu berdina zuen, ez zen eztabaidatu, baizik eta zuzenean bozkatu zen eta orain eztabaidatu daitekeen arren, talde Sozialistak uste du ezaugarri hauetako zerbitzu publiko bat ezin dela ezarri zerbitzuaren izaera juridikoa, ezarpenaren zenbatekoa, sortzen duen ohiko gastua, aurre egiteko finantzazioa, etab. aztertu gabe. Talde Sozialistak babesten du hiri-garraioari buruzko 2004ko azterketa eguneratzea, egungo aukera guztiak ikusi eta hortik aurrera erabakiak hartu ahal izateko. Gogoratu du azterketa hartan %40 bidaiari ibiliko zirela aurreikusten zela eta urtean milioi bat euro baino gehiagoko defizita sortzen zuela, eta kopuru horiei nekez egin dakieke aurre. Amaitzeko adierazi du Getxon hiri-garraioa planteatzeko egiazko borondate politikoa baldin badago, aurrez egin beharreko azterketak egitea planteatu beharko litzatekeela, beraz, talde Popularraren jarrerak adierazten duen bakarra bere proposamenen ondorio politikoak eta mediatikoak dira.

el apoyo del grupo Socialista, planteaba un estudio, y el año 2007 que presentó el grupo Popular un texto idéntico al actual, no fue objeto de debate sino que directamente se votó, y que ahora se puede debatir, y el grupo Socialista cree que la implantación de un servicio público de estas características no se puede realizar sin estudiar detenidamente la naturaleza jurídica del servicio, el costo de la implantación, el gasto corriente que genera, la financiación para hacer frente, etc. El grupo Socialista apoya actualizar el estudio del año 2004 sobre el transporte urbano, a fin de contemplar todas las posibilidades actuales, y a partir de ahí tomar una decisión. Recuerda que en aquél estudio se preveía solamente una ocupación de viajeros del 40% y generaba un déficit superior al millón de euros anual, que son cantidades difícilmente asumibles. Finaliza indicando que si hay una voluntad política real de plantear el transporte urbano en Getxo, se tendría que apoyar en la realización de los estudios previos necesarios, por lo que la postura del grupo Popular lo que indica es que únicamente busca la repercusión política y mediática de sus propuestas.

Jon Eguiluzek adierazi du hiri-garraioa Udalaren eskumena dela eta alderdi ekonomikoei dagokienez garraio-enpresen zenbait azterketa badaudela eta Mozioarekin nahi duten bakarra Getxon hiri-garraioa ezartzea dela, eta lizitatzaileen eskaintzetan zehaztuko liratekeela gastu ekonomikoak, Udalak aztertu ahal izateko.

Jon Eguiluz manifiesta que el transporte urbano es competencia del Ayuntamiento, y que respecto a los aspectos económicos existen diferentes estudios de empresas del transporte, que entienden más que las consultoras, y que la Moción sólo busca que en Getxo se implante un transporte urbano, y que en las ofertas de los licitadores se concretarían los costos económicos para que fueran objeto de estudio por el Ayuntamiento.

Almansa jaunak adierazi du talde Popularrak baduela 2004ko azterketa

El Sr. Almansa manifiesta que el grupo Popular tiene el estudio del 2004 y el

eta urte hartako Udalaren txosten teknikoa eta aurrez aipaturiko zenbatekoak aipatzen zirela. Eta erabilera estandarra %60koa izanda ere, urtean 800.000 euro baino gehiagoko defizita egongo litzatekeela.

informe técnico municipal de aquél año, y que recogía los importes antes indicados, y que aún en el supuesto de llegar a una cuota de utilización estandar del 60% existiría un déficit de más de 800.000 euros anuales.

Jon Eguiluzek aitortu du talde Popularrak datu hauek badituela, nahiz eta ados ez egon, eta soilik enpresa espezializatuen proiektuak ezagututakoan ezagutuko direla egiaz gastuen balorazioak.

Jon Eguiluz reconoce que el grupo Popular tiene esos datos aunque no están de acuerdo con ellos, y que únicamente conociendo los proyectos de las empresas especializadas se van a conocer realmente la valoración de los costes.

Koldo Iturbek hartu du hitza eta eskerrak eman dizkio Jon Eguiluzi bere parte hartzea euskaraz egin duelako eta talde Sozialistak adierazitakoarekin koherentzian aldaketa transakzional bat planteatu du lehen puntuak 2004ko azterketa eguneratuta jaso dezan, gero Udalak egin beharreko jarduerak definitzeko eta bigarren puntuko edukia kentzea ere planteatu du. Era berean, adierazi du Gobernuko taldea Bizkaibusekin harremanetan dagoela, hiri arteko garraioaz arduratzen den enpresa baita, Getxoko udalerriaren barruan zerbitzua hobetzeko eta gogorarazi du udalerriko zenbait eremutako irisgarritasuna hobetzeko jarduera batzuk egin direla.

Koldo Iturbe interviene para agradecer a Jon Eguiluz que haya intervenido en euskera, y plantea en coherencia con lo indicado por el grupo Socialista una enmienda transaccional, que en relación al primer punto recoja la actualización del estudio del año 2004, para luego definir las actuaciones a realizar por el Ayuntamiento, y que se suprima el contenido del punto segundo. Manifiesta también que el equipo de Gobierno está en contacto con BizkaiBus, empresa encargada del transporte interurbano para mejorar el servicio dentro del término municipal de Getxo, y recuerda así mismo las actuaciones que se han venido realizando en orden a mejorar la accesibilidad de las diferentes zonas del municipio.

Jon Eguiluzek adierazi du ez daudela ados dirua azterketetan gastatzen jarraitzearekin, azterketa horiek enpresa-garraioek egin baititzakete, eta proposamen zehatzen arabera Udalak erabakitzeko aukera izango luke.

Jon Eguiluz indica que no están de acuerdo en seguir gastando dinero en estudios, ya que pueden ser estos asumidos por las empresas del transporte, y a la vista de las propuestas concretas el Ayuntamiento podría decidir.

Alkateak hartu du hitza adierazteko bere iritziz azterketak ez dituztela enpresek egin behar, gero zerbitzuak

El Sr. Alcalde interviene para manifestar que en su opinión los estudios no los deben realizar las

esleitzeko interesa izaten baitute, baizik eta hirugarrengo inpartzialek egin behar dituzte.

empresas que están interesadas luego en las adjudicaciones del servicio, si no que deben ser realizados por terceros imparciales.

Jon Eguiluzek adierazi du enpresa asko daudela eta azterketa aurkezteagatik ez luketela kobratuko, gero lizitazioan aurkezteari kalterik egin gabe.

Jon Eguiluz manifiesta que hay muchas empresas y que por presentar el estudio no cobrarían, sin perjuicio de que luego tengan que presentarse a la licitación.

Aipaturiko Mozioa bozkatu da eta atzera bota da aldeko 9 boto (PP) lortu baititu, 10 aurka (EAJ) eta 4 abstentzio (PSE-EE).

Sometida la Moción de referencia a votación, es desestimada al obtener 9 votos a favor del PP y 10 en contra del PNV y 4 abstenciones del PSE-EE.

**92..- UDALEKO TALDE POPULARRAREN MOZIOA EUSKERA DISKRIMINATZEKO ELEMENTU IZATETIK KENTZEARI BURUZ.**

**92º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ELIMINACIÓN DEL EUSKERA COMO ELEMENTO DISCRIMINATORIO.**

Jesús Tocak irakurri du Mozioa. Adierazi du oinarri hauetan euskara beste ezagutza batzuen gainetik dagoela, izan ere, euskarari lau urteko esperientziari eta master bati adina puntu ematen baitzaizkio eta ez du uste arrazoizkoa denik. Horregatik, legezko gutxieneko puntuak ezartzea planteatzen dute. Kritikatu egin du alkateak euskararen gaiarekin duen fijazioa funtzio publikoan sartzeko orduan, nahiz eta arlo politikoan, hala nola, kargu publikoetara sarbidea izateko, ez dute euren alderdian ezartzen eta eskatu ere ez. Gogorarazi du euskara eskatzeak eta euskarari ematen zaion puntuazioak Getxoko herritar asko diskriminatzen dituela. Talde Sozialistari gogorarazi dio lanpostuen zerrenda oinarri hartuta ari badira lanean egoera hau aldatzeko aukera duela eta alkateak herritar

Jesús Toca da lectura a la Moción de referencia. Manifiesta que en estas bases se prima el euskera sobre otro tipo de conocimientos, ya que los puntos que se otorgan al euskera se equiparan a cuatro años de experiencia y un master, lo cual no le parece razonable, por lo que plantean aplicar el mínimo legal de puntuación. Critica la fijación del Alcalde por el tema del euskera a la hora del acceso a la función pública, cuando en ámbitos políticos como el acceso a cargos públicos no lo aplican en su partido ni se exige. Recuerda que la exigencia del euskera y la puntuación discrimina a una gran parte de la población de Getxo. Recuerda al grupo Socialista que si está trabajando sobre la RPT tiene la oportunidad de corregir estas situaciones y posibilitar que el Alcalde cumpla los acuerdos plenarios que

gehienen borondatea adierazten duen osoko bilkurako akordioak bete ahal izango ditu.

representan la voluntad mayoritaria de los vecinos.

Mozioa bozkatu da eta emaitza honakoa izan da: 13 boto alde (PP eta PSE-EE) eta 10 aurka (EAJ).

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PP y PSE-EE y 10 en contra del PNV.

Ondorioz, gehiengoak adostu du:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"EUSKARA DISKRIMINATZEKO ELEMENTU IZATETIK KENTZEA

"ELIMINACIÓN DEL EUSKERA COMO ELEMENTO DISCRIMINATORIO

2009ko apirilaren 30ean onartu zuen Udal honetako alkateak 2452/2009 Dekretua.

El pasado treinta de abril de 2009 se aprobó por parte del Sr. Alcalde de este Ayuntamiento el Decreto 2452/2009.

Dekretu horretan gizarte langileen lanpoltsa sortzeko berariazko oinarriak onartu ziren.

En el citado Decreto se aprueban las bases específicas creación de una bolsa de trabajadores sociales

Berriro ere gobernu talde honek behin-behineko kontratazioa erabiliko du Udaleko lanpostu batean sartu ahal izateko eta berriro ere euskara erabiliko du hizkuntza hori ezagutzen edo menderatzen ez duten herritarrak kentzeko edo diskriminatzeko.

Una vez más este equipo de Gobierno utiliza la contratación temporal como fórmula para acceder a un puesto de trabajo del Ayuntamiento y una vez más utiliza el Euskera para eliminar o discriminar a los ciudadanos que no conozcan o dominen esta lengua.

Kasu honetan euskara jakitea ukatzailea ez den arren, gain-baloratuta dago, eta uste dugu euskara jakiteari prestakuntzari baino garrantzi handiagoa ematen zaiola edo, batez ere, esperientzia profesionalari baino handiagoa.

En el presente supuesto la valoración del Euskera, si bien no siendo excluyente, está sobre-considerada de forma que entendemos que se prima con mucho el conocimiento del Euskera antes de la formación o sobre todo se la experiencia profesional.

Alderdi Popularrak profesionalik eta langilerik onenak nahi ditu lanerako. Horregatik, gure ustez esperientzia eta prestakuntza euskararen gainetik egon behar dira, lanpostuetan sartzeko balorazioei dagokienez.

Desde el Partido Popular lo que se busca son los mejores profesionales y trabajadores para el desarrollo de una labor y por eso consideramos que la experiencia y la formación deben estar por encima del Euskera en cuanto a valoración para acceder a un puesto de

trabajo.

Horregatik guztiagatik Udaleko talde Popularrak akordio-proposamen hau egin du:

Udaleko Osoko Bilkurak alkatea premiatzen du 2009ko apirilaren 30eko 2452/2009 Dekretua deuseztera/indargabetzera eta bere tokian beste bat agintzera esperientzia profesionala eta gainerako trebakuntza euskara ezagutzearen gainetik egongo direnak, eta euskararen merítua Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak finkatutako gutxiengoen arabera balora dezan."

Por todo ello el Grupo Municipal Popular realiza la siguiente propuesta de acuerdo:

El Ayuntamiento en Pleno insta al Sr. Alcalde para que proceda a la anulación/derogación del Decreto de Alcaldía 2452/2009 de fecha 30 de abril de 2009, y dicte en su lugar uno nuevo en el que se prime la experiencia profesional y la formación adicional, sobre el conocimiento del Euskera, aplicando en la valoración de méritos del Euskera los porcentajes mínimos que para cada perfil lingüístico fija el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por lo que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi."

## 93.- UDALEKO TALDE POPULARRAREN MOZIOA UDAKO AIRE LIBREKO ZINEARI BURUZ.

## 93º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/CINE DE VERANO AL AIRE LIBRE.

Josu Ahedok irakurri du aipaturiko Mozioa.

Josu Ahedo da lectura a la Moción de referencia.

Almansa jaunak Mozioa kentzeko eskatu du jarduera 2009ko aurrekontuetan sartuta baitago partida zehatz bezala talde Sozialistak hala eskatuta.

El Sr. Almansa pide que se retire la Moción ya que esta actuación está incorporada en los presupuestos del año 2009 con una partida concreta, a propuesta del grupo Socialista.

Ahedo jaunak adierazi du aurrekontuak ez duela Mozioko 2. xedapen zatian datorrena jasotzen, hau da, taldeek parte hartzea noiz, nola eta zer film ikusiko diren definitzeko.

El Sr. Ahedo indica que el presupuesto no recoge lo que viene en el apartado 2 de la parte dispositiva de la Moción, que supone una apertura de la participación de los grupos para definir cuando, cómo y qué películas se van a visionar.

Almansa jaunak berriro dio Mozioak ez duela zentzurik eta parte hartzeari dagokionez, talde Sozialistak hori babesten du.

El Sr. Almansa insiste en que no tiene sentido la Moción, y respecto a la participación es algo que el grupo Socialista apoya.

Ahedo jaunak berriro dio nahi duten bakarra jarduera horiek antolatzea dela eta galdetu du zer gertatuko litzatekeen antolatuko ez balira.

El Sr. Ahedo insiste en que lo único que quieren en que se organicen esas actividades y pregunta qué pasaría si no se llegan a organizar.

Almansa jaunak adierazi du gustura dagoela talde Popularrak aurrekontuetan dagoen zerbaiten Mozioa aurkeztu duelako, borondate ona adierazten baitu horrek, baina absurdua iruditzen zaio.

El Sr. Almansa manifiesta su satisfacción porque el grupo Popular presente una Moción de algo que está en el presupuesto, porque confirma la bondad del mismo, pero que le parece absurdo.

Koldo Iturbek adierazi du Gobernuko taldeak talde Sozialistarekin lortutako akordioak beteko dituela eta, beraz, aurrekontuetako prebisioak burutuko direla, beraz, Mozioak ez du zentzurik eta abstenitu egingo da. Gogorarazi du lehen aire libreko zinea egoten zela eta Horrelakoak egiteari utzi egin zitzaiola teknologiek aurrera egin baitzuten filmen disponibilitatearekiko, beraz, nekez eskain ditzakete primiziak eta gauez ikusi behar direnez, haurrak mugatuta daude eta horrek eragin zuzena du etortzen den jende kopuruan, horrelako jarduera oraindik ere mantentzen den tokiko jaietan ikusten denez. Amaitzeko, aitortu du film laburren zikloetarako ikus-entzule espezializatuak badaudela.

Koldo Iturbe indica que el equipo de Gobierno va a cumplir los acuerdos alcanzados con el grupo Socialista, y por tanto se ejecutará la previsión presupuestaria, por lo que no ve sentido a la Moción y se abstendrán. Recuerda que antes existían actividades de cine al aire libre, y que se dejaron de realizar por el avance de las tecnologías en relación a la disponibilidad de las películas, por lo que difícilmente se pueden ofrecer primicias, y también que al tener que visionarse de noche, esto limita al público infantil, lo cual tiene efectos directos sobre la afluencia de gente, tal como se demuestra en aquéllas fiestas locales en las cuales se mantiene todavía este tipo de actuación. Finaliza reconociendo que sí existe un público especializado para los ciclos de cortometrajes.

Ahedo jaunak proiekzioak noiz izango diren galdetu du eta talde politikoek parte hartuko duten.

El Sr. Ahedo pregunta cuando se van a realizar las proyecciones, y si va a existir participación de los grupos políticos.

Luis Almansak adierazi du talde Sozialistak Mozioaren aurka bozkatuko

Luis Almansa manifiesta que el grupo Socialista va a votar en contra de la

duela, aurrekontuetan sartuta dagoelako jada.

Aipaturiko Mozioa bozkatu da eta emaitza honakoa izan da: 9 boto alde (PP), 4 aurka (PSE-EE) eta 10 abstentzio (EAJ).

Ondorioz, gehiengoak adostu du:

"UDAKO AIRE LIBREKO ZINEA

Udal batzuetan uda aprobetxatzen da aire librean eta doan zenbait jarduera antolatzeko. Uste dugu Romoko eta Algortako plazetan Kopako finala ikusi ahal izana oso esperientzia ona izan zela eta esperientzia hori aprobetxatu daitekeela udan aire libreko zine zikloa antolatzeko.

Iradokitzen dugun jarduera hau herritarrak kalera irteteko arrazoi bat gehiago litzateke eta doan seme-alabekin eta beste familiekin plan bat antolatzeko modua ere bai. Denok dakigu erantzun ona izaten dutela eta harrera ona egiten zaiela horrelako jarduerei udalerrian, hala ikusten da Kultur Etxeak antolatzen dituen beste ekitaldi batzuetan. Gaineraz, udalerri honetako zenbait herritarrek egin diguten eskaria da, eta gurea bezalako herri udatiarrean horrelako jarduera bat antolatzeko interesa agertu dute.

Erraz materializatu daitekeen jarduera da, beste udalerrietan arrakasta izan duena eta hemen ere izan dezakeena. Data egokiak aukeratu beharko lirateke eta jende guztiari gustatzeko moduko filmak. Filmak proiektatzeko tokirik

Moción porque ya está incorporada a los presupuestos.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 9 votos a favor del PP, 4 en contra del PSE-EE y 10 abstenciones del PNV.

En consecuencia, se acordó por mayoría:

"CINE DE VERANO AL AIRE LIBRE

En algunos ayuntamientos se aprovecha la época de verano para organizar actividades al aire libre de modo gratuito. Creemos que dada la buena experiencia de la retransmisión de la final de Copa en dos plazas del municipio situadas en Romo y en Algorta, podría aprovecharse la experiencia para organizar un ciclo de cine de verano al aire libre.

Esta actividad que sugerimos sería un motivo más para que los ciudadanos del municipio salieran a la calle y de modo gratuito pudieran organizar un plan familiar con sus hijos y con otras familias amigas. Todos sabemos la buena respuesta y la acogida que suelen tener este tipo de actividades en el municipio con otros eventos que se organizan por el Aula de Cultura. Además, esta es una petición que hemos recibido de varios ciudadanos de este municipio que han mostrado su interés para que se organice una actividad de este tipo en un municipio veraniego como el nuestro.

Es una actividad de fácil materialización que ha tenido éxito en otros municipios y que también en este podría tenerlo. Habría que elegir unas fechas adecuadas y unas películas que puedan gustar a todos los públicos.

egokiena zein den ere zehaztu beharko litzateke.

También habría que concretar cuál es el lugar más idóneo para la proyección de estas películas.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Alderdi Popularrak akordio-proposamen hau aurkeztu du:

Por todo ello el Partido Popular de Getxo presenta la siguiente: propuesta de acuerdo:

1. Gobernuko taldea premiatu aire libreko zine ziklo bat antolatzeko plan zehatza diseinatu dezan.

1. Instar al equipo de Gobierno a que diseñe un plan concreto para organizar un ciclo de cine al aire libre.

2. Talde guztiei kontsultatzeko eskatu, denen artean herritarren beharretara egokitutako plana diseinatu ahal izateko.

2. Solicitar que se consulte a todos los grupos políticos para que entre todos se pueda llegar a diseñar un plan adecuado a las necesidades de los ciudadanos.

3. Promozio kanpaina bat egin dadila, antzeko jarduerak egiten direnean gertatzen den bezala, udalerriko herritarrei jakinarazteko".

3. Se realice una campaña de promoción, tal y como se suele hacer en casos en los que se organizan actividades similares a estas, para darlo a conocer a los ciudadanos del Municipio".

**94.- <u>UDALEKO TALDE POPULARRARAREN MOZIOA MERKATARITZAN KALITATEAREN ALDEKO APOSTUA EGITEARI BURUZ</u>.**

**94º.- <u>MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/APUESTA POR LA CALIDAD EN EL COMERCIO</u>.**

Andrade jaunak irakurri du Mozioa:

El Sr. Andrade da lectura a la siguiente Moción:

"MERKATARITZAN KALITATEAREN ALDE EGITEKO APOSTUA

"APUESTA POR LA CALIDAD EN EL COMERCIO

2009ko apirilaren 30ean argitaratu zen Eusko Jaurlaritzak merkataritza babesteko deialdia "Kalidenda" izeneko programan, nagusiki Merkataritza Ganbarek kudeatutakoan.

El pasado 30 de Abril de 2009 se publico la convocatoria del Gobierno Vasco de apoyo al comercio en el programa llamado "Kalidenda", gestionado principalmente por las Cámaras de Comercio.

Programa horren helburua da merkataritza txikien salmentak sustatzea, herritarrak horrelako saltokietan gehiago erostera bultzatzea, txikizkako merkataritzan kalitate hobea eskainita bezeroaren arretan eta leial bihurtzean, bezeroaren arretarako kalitatezko ziurtagiri batzuk igorrita.

El objetivo del citado programa es impulsar las ventas del pequeño comercio, incentivar a la población a consumir más en este tipo de establecimiento, ofreciéndoles una mejora en la calidad del comercio minorista en la atención y fidelización del cliente mediante la emisión de unas certificaciones de calidad en atención al cliente.

Kalidenda programak txikizkako merkataritzako funtsezko lau jarraibidetan jartzen du arreta:

El programa Kalidenda presta atención a cuatro pautas fundamentales del comercio minorista:

ZERBITZUAN.- bezeroaren arretan neurtzen du, hau da, merkatariak kontsumitzailearekiko duen jarrerari erreferentzia egiten dio, sinesgarritasun mailari, adeitasunari eta ulermenari.
ELEMENTU UKIGARRIETAN.- instalazioen kalitatea baloratzen da, garbitasuna.
PERTSONALEAN.- pertsonalaren irudia kontuan hartzen du.
ETENGABEKO HOBEKUNTZAN.- saltokian sartzen diren hobekuntzak berrikusten dira.

SERVICIO.- mide la atención al cliente, es decir, hace referencia a la actitud del comerciante con respecto al consumidor, el grado de credibilidad, cortesía y comprensión.
ELEMENTOS TANGIBLES se valora la calidad de las instalaciones, la limpieza
PERSONAL.- tiene en cuenta la imagen del personal
MEJORA CONTINUA.- revisar las mejoras que se van introduciendo en el establecimiento.

Era berean, programak bi fase ditu. Lehenengo fasea Ezarpena da, eta merkatariek prestigiodun aholkularien laguntza izango dute, arauan eskatzen diren alderdiak ezagutzeko eta euren egiteko.

Asimismo el programa consta de dos fases. Una primera fase de Implantación en la que los comerciantes contarán con el asesoramiento de consultoras de prestigio para conocer e interiorizar los aspectos requeridos en la norma.

Bigarren fasean ziurtatu egiten da, hau da, ziurtagiriak ematen dituzten enpresek zehatz aztertuko dute araua betetzen dela interesatutako saltoki guztietan.

Y una segunda fase, la certificación, en la que empresas certificadoras serán las encargadas de realizar un análisis exhaustivo del cumplimiento de la norma en todos los establecimientos comerciales interesados.

Getxoko Alderdi Popularrean uste dugu gure merkataritzan tratu eta

Desde el Partido Popular de Getxo consideramos que la mejora en la

arreta pertsonalizatuaren bidez bezeroa artatzeko kalitatea hobetzea, asebetetzea eta bezeroa leial bihurtzea bereizgarria izan beharko litzatekeela, tokiko merkataritzak bizirauteko funtsezkoa. Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela gure merkatariak kalitatea aurkitzeko bide honetan babestea eta sustatzea.

calidad en atención al cliente, la satisfacción y fidelización del cliente a través de un trato y atención personalizado en nuestro comercio debe ser un hecho diferencial, fundamental para conseguir la supervivencia del comercio local, por ello consideramos fundamental el apoyo e incentivo a nuestros comerciantes en este camino de la búsqueda de la calidad.

Eusko Jaurlaritzak %80ko diru laguntza eskaintzen du merkataritzan kalitatea ezartzeko prozesu honen kostuetan, eta gainerako %20a Udalak jartzea proposatzen dugu, gure merkatarien arazo ekonomikoak euren saltokiak hobetzeko oztopo izan ez daitezen.

El Gobierno Vasco ofrece una subvención del 80% en los costes de este proceso de implantación de calidad en el comercio, por lo que proponemos que el Ayuntamiento aporte el 20% restante de forma que los problemas económicos de nuestros comerciantes no sean un obstáculo para la mejora de sus establecimientos.

Azkeneko edizioan Kalidenda programa osoa 1.375 € izan zen, batez beste, eta Eusko Jaurlaritzak %80a diruz laguntzen duenez (1.100 €) Udalak gainerako %20 besterik ez luke ordaindu beharko saltoki bakoitzeko (275 €).

En la última edición el coste medio del programa completo kalidenda era de 1.375 € por lo que al estar subvencionado al 80% por el Gobierno Vasco(1.100 €), el Ayuntamiento solo tiene que abonar el restante 20% por comercio (275 €)

Horregatik, Getxoko Alderdi Popularrak akordio-proposamen hau aurkezten du:

Por lo que el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente propuesta de acuerdo:

1.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak udalerriko merkatariak premiatzen ditu Eusko Jaurlaritzaren KALIDENDA programan parte hartzera, Getxon dagoen Jabetza Ganberako Ordezkaritzaren bidez.

1º.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta a los comercios de Getxo a participar en el Programa KALIDENDA del Gobierno Vasco, a través de la Delegación de la Cámara de la Propiedad situada en Getxo.

2.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Gobernuko taldea premiatzen du Getxoko txikizkako merkataritzari diruz laguntzeko lerro bat gaitu dezan, Eusko Jaurlaritzak Kalidenda programan sustatutako baldintza eta

2º.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al equipo de Gobierno para que habilite una línea de subvenciones al Pequeño Comercio de Getxo con las mismas condiciones y características de las promovidas por el Gobierno Vasco

ezaugarri berdinekin eta gastuen %20 diruz lagunduta".

en el programa Kalidenda ofreciendo una subvención del 20% sobre el coste del mismo".

Aitor Soloetak adierazi du Sustapen Ekonomikoko Arloan ezagutzen dutela programa eta Udalak programa hori zabaltzeko eta Merkataritza Ganberaren aurrean bitartekari izateko lana hartu duela eta horretarako Merkatarien Elkartearekin bildu dela. Mozioan eskatzen denari dagokionez, Udalak Eusko Jaurlaritzak ematen ez duen %20 hori emateari dagokionez alegia, adierazi du zenbateko hori Merkataritza Ganberak ordaintzen duela, beraz, ez du zentzurik Udalari eskatzeak.

Aitor Soloeta indica que en el Área de Promoción Económica conocen el programa y que el Ayuntamiento ha asumido la labor de difusión e intermediación ante la Cámara de Comercio, y para ello se ha reunido con la Asociación de Comerciantes. Respecto a lo que se solicita en la moción, relativo a que el Ayuntamiento abone el 20% que no abona el Gobierno Vasco, indica que esta cuantía es financiada por la Cámara de Comercio, por lo que no tiene sentido que se solicite al Ayuntamiento.

Andrade jaunak adierazi du ez duela inon ikusi programa merkatariei zabaltzeko kanpaina hasi denik, ez eta %20 hori Merkataritza Ganberak bere gain hartuko duenik ere, eta eragiten dion profesionala denez, Merkataritza Ganberarekin harremanetan jarri da programari buruz galdetzeko eta ez diote esan %20 hori euren gain hartuko dutenik, beraz, Mozioko testua bere horretan mantenduko du.

El Sr. Andrade indica que no le consta en ningún momento que se haya iniciado una campaña de difusión del programa a los comerciantes, ni tamapoco que por parte de la Cámara de Comercio se vaya a asumir ese 20%, indicando que como profesional afectado, se ha puesto en contacto con la Cámara de Comercio preguntando sobre este programa, y que nada se le ha indicado de que fueran a asumir el 20%, por lo que mantienen el texto de la Moción.

Soloeta jaunak Merkataritza Ganberak igorritako fax bat irakurri du eta hor adierazten da %20 hori euren gain hartuko dutela, eta Merkatarien Elkartearekin bildu dela adierazten du, programa Getxoko saltokietara nola eraman ikusteko. Talde Popularrari eskatu dio gutxienez Mozioko bigarren puntua kentzeko, onartuz gero, diru publikoa alferrik erabiliko bailitzateke.

El Sr. Soloeta da lectura a un Fax de la Cámara de Comercio en el que indican que asumen la financiación del 20%, e indica que se ha reunido con la Asociación de Comerciantes para definir cómo trasladar el programa a los comercios de Getxo, solicitando que al menos retire el grupo Popular el segundo punto de la Moción, ya que su aprobación supondría un derroche del dinero público.

Andrade jaunak berriro dio lau aste igaro direla programa hasi zenetik eta

El Sr. Andrade replica que han pasado cuatro semanas desde que se inició el

oraindik ez direla zabaltzen hasi. %20ari dagokionez, ez luke testua aldatzeko inolako eragozpenik izango jarri ahal izango balu Merkataritza Ganbera horren kargu egiten ez bada Udala egingo dela.

programa y aún no se han realizado las labores de divulgación. En relación al 20% no tendría inconveniente en modificar el texto para incorporar que el abono del Ayuntamiento sería en el supuesto de que la Cámara de Comercio no se hiciera cargo del mismo.

Almansa jaunak adierazi du Mozioa demagogikoa dela eta dena doan edo diruz lagunduta izatea eskatzen duela. Adierazi du %80a Eusko Jaurlaritzak estaltzen duela eta beste %20a Merkataritza Ganberak estali dezake, beraz, Mozioa mantentzeak ez du zentzurik. Gainera, testua idatzita dagoen bezala egonda, merkatarien borondatean sartzen da, beraz, Mozioa kentzeko eskatzen du.

